



AEK-ren ESKAERARI ERANTZUNEZ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNeko ZUZENDARITZA BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIA

Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeari "*Euskara ikastea, denon eskubidea*" idazpurupean aurkeztu dion atxekimendu eskaera dela-eta, Zuzendaritza Batzordeak, otsailaren 7an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen ahobatez:

“LEHENA: Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak ondoko hausnarketak azaldu nahi dizkie herritarrei orohar eta, oso bereziki, bazkideei:

- a) Orohar euskalgintzan eta bereziki euskalduntze eta alfabetatzearen alorrean AEK-k dituen helburuekin bat dator Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, elkar hartzen baitute helburu nagusietan kultur bazkunak eta AEK-k.
- b) Euskararen eta euskal kulturaren normalkuntza eta hedapen prozesuan, helburu horiei begira garatutako ezein ekintza eta iharduerak behar du izan, eta oso bereziki helduen euskalduntze edo alfabetagintzari dagozkienek, herri administrazioen babesa eta laguntza, euskararekiko lehentasunezko politika finkatu eta osatu baten baitan.
- c) Horregatik, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak ezinbesteko deritza AEK-ren eta Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzaren artean erakunde horrekiko dirulaguntzen politika dela-eta sortutako arazo edo gatazkari irtenbide negoziatu bat emateari elkarrizketaren bitartez. Behar-beharrezko lorpenzat jotzen du Kultur Bazkunak eginpide hori, euskal gizartearen baitan euskaldun guztiok hain gogoko dugun normaltasunera iristeko.
- d) Alabaina, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak, eskaera aztertze unean, oso kontutan eduki behar izan du bazkunaren baitan pentsakera eta ideologia askotariko lagunak egonik, AEK-rekiko dirulaguntzen politika dela-eta egon litezkeela elkarte jarraera erabat kontrakoak eta bat ez datozenak, eta, horren ondorioz, elkarte gisa jarraera hartu beharrak kultur bazkuna eztabaidaren zurrunbiloan sarraraz lezakeela, maiz gai eta liskar ugariren inguruan gertatu izan den lez, kultur bazkunaren beraren pluraltasunezko izatea eta etorkizuna arriskuan jarriz.

e) Zuzendaritza Batzorde honek lorkizun handitzat du kultur bazkunaren baitan ahalik eta azkarren pluraltasun ororen baitako arau, irizpide eta jokabidez hartu ahal izatea erabakiak, Kultur Bazkunaren zutoin nagusiak zalantzan jarri gabe.

BIGARRENA: lehenengo puntuan azalduriko hausnarketan argitara, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritzak erabaki du atxekimenduzko idatzia elkarte gisa sinatu ordez, bere bazkideei hizpidea ematea AEK-ren eskaerari bazkide gisa atxekitzeko.

Horrenbestez, Kultur Bazkunak bere gain hartzen du bazkideen artean atxekimenduzko idatzia sinatzeko deia egitea, eta biderik eroso eta egokiena zabaltzea nahi duten bazkideek hala egin dezaten.

HIRUGARRENA: bazkideen artean sinadura bilketa amaituta, bazkide sinatzaileen zerrenda jakitera emango zaio AEK-ri, Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzorde honen erabakia jakineraziz bidebatez.”

Asteasu, 1994, otsailak 26.

Gaia: AEK-Jaurlaritzaren arteko harremanak.

Jaun/Anderea:

Urtarrilaren 31n eta Kultura Sailburua den Joseba Arregiren ekimenez, AEK eta Jaurlaritzaren arteko bilera gauzatu zen Lakuan, bilera honetan EAJko ordezkari batzuk ere hartu zuen parte. Bertan libre izaera duten eta milaka eta milaka pertsona heldu euskalduntzen edo alfabetatzen ahalegintzen diren gau-eskola eta euskaltegien egoera bideratzeko borondatea adierazi zuen Joseba Arregik.

Ostean irekitako prozesuaren ondorioz, AEKk proposamen bat helarazi zion Kultura Sailari 1994ko otsailaren 23an. Proposamen honetan oinarrituz, martxoaren 3an EAJ, Kultura Saila eta AEKk akordiorako markoa adostu zuten.

Martxoaren 12an AEKko gau-eskola eta euskaltegien ordezkariak Agurainen bildu ziren eta berretsi egin zuten martxoaren 3ko akordioa. Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere aldetik, martxoaren 29an egindako bileran berretsi zuen aipatu akordioa.

Akordio honen lehenengo puntuak hiru helburu nagusi zehazten ditu; lehenengoa, helduen euskalduntze alfabetatzean elkarlanerako baldintzak sortzeko bi aldeek hartzen duten konpromezua; bigarrena, helduen euskalduntze alfabetatzea indar berriz bultzatzeko bi aldeek adierazten duten nahia; hirugarrena, AEKko euskaltegien normalizazioa eta garapena ziurtatzeko elkarrizketa prozesu zabalagoari ekiteko erabakia. Era berean, 1994ko ihardunaldiaren barruan AEKri 125 milioiko dirulaguntza bideratuko zaio baita ere.

Prozesu guzti honetan euskal gizarteak izan duen eskuhartzea nabarmendu nahi du AEKk, izan ere, aste gutxiren buruan 140.000 sinadura bildu izan dira, 1.300 bat elkarte eta erakunde desberdin izanik "*Euskara ikastea denon eskubidea Euskal Herri osoan*" izeneko agiria izenpetu dutenak. Herri eta auzoetan burututako ekintzak edo martxoaren 5ean, eskubide berbera aldarrikatzeko asmoz, Bilboko kaleak zeharkatu zituen manifestazio jendetsuak agerian utzi dute herritarren nahia.

Guztion artean euskalgintzan eta helduen euskalduntze alfabetatzean dinamika sozial berria eragin dezakeen urratsa ematea lortu dugu. AEKk herritar eta elkarte nola baita erakunde guztiei eskerrak eta zorionak eman nahi dizkie erakutsi duten portaera eta jarreragatik.

Jaurlaritza eta AEKren arteko akordioak konponbide orokorragorako ateak zabaltzen ditu Euskal Autonomi Elkarteak, euskara eta helduen euskalduntze alfabetatzea bultzatu dezakeen

akordio orokorragorako atearak, alegia.

Nafarroako eta Frantziako agintariak, bestalde, ez dute euskararekiko orain arte eramandako jokaera aldatzeko borondaterik agertu. Nafarroan, helduen berreuskalduntzea araupetzen duen dekretua indarrean dago eta bere aplikazioaren ondorioz geroz eta pertsona heldu gehiago geratzen ari da inolako dirulaguntzarik gabe. Frantziako Gobernuak, bestalde, ez euskara ez eta euskararen alde lanean ari diren elkarte eta erakundeak ez ditu lagundu nahi, horren ondorioz helduen alorrean lanean ari den erakunde bakarrak, AEKk, etengabeko oztopo eta trabak gainditu behar ditu burutzen duen langintzak aurrera egiteko modurik eduki dezan.

Aurreko guztia kontuan, AEKk *“Euskara ikastea denon eskubidea Euskal Herri osoan”* kanpainan bildutako sinadurak Ardanza eta Alli Lehendakariei aurkeztuko dizkie, era berean, Hizkuntza Gutxiagotuen Aldeko Bulego Europarrean ere aurkeztuko ditu, pertsona heldu orok euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko daukan eskubidea bermatzeko asmoz administrazio desberdinek erabakiak har ditzaten egin beharreko gestioak buru ditzan.

Guzti horrezaz gain, Nafarroan, beste ekimen batzuen artean, IKArekin batera hasitako elkarte, erakunde eta abarren arteko sinadura bilketari ekingo zaio, Nafarroako Gobernuari "elkar-ulertzearen bidea zabalduz traba guztiak gainditzeko neurriak har ditzala" eskatzeko Nafar Gobernuari. Euskal Autonomi Elkartearen berriz, akordio orokorragoa lortzeko asmoz burutuko diren ekimen desberdinetan esku har dezazun eskaria egin nahi dizugu, izan ere, euskara dugu, mendez mende, gure iragana eta etorkizuna lotzen dituen bide zidorra. Gure herri izatearen oinarria, euskarak, helduen euskalduntze-alfabetatzeak eta AEKk aurrera egingo dute denok bateginik elkarriketa eta adostasunean oinarritutako prozesua bultzatzen badugu, pauso bat bestearen atzetik eman dadin gu guztion eskuhartzea behar beharrezkoa izango da.

Besterik gabe, bada, eta aldiro prozesu honen berri emango dizugula adieraziz, har ezazu gure agurrik adeitsuena.

Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak